

**NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIA-VIANAKO PRINTZEA
ERAKUNDEAREN ILDO ESTRATEGIKO ETA 2016-
2019 PLANAREKIN LOTUTA DAGOEN PARTE-
HARTZE PROZESUAREN KUDEAKETA ETA
DINAMIZAZIOA**

BEHIN BEHINEKO AZKEN DOKUMENTUA

2016KO ABENDUA



EIN ARQUITECTURA E INGENIERÍA URBANA S.L.U.

Tfno. 948 82 52 62

E-mail: einsl@einsl.es

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

AURKIBIDEA

1.-SARRERA ETA HELBURUAK	1
2.-INFORMAZIO ETA PARTE-HARTZE PROZESUA	2
2.1.-PROZESUAREN FASEAK.....	2
2.2.-PROZESUAREN INFORMAZIO, KOMUNIKAZIO ETA DEIALDI EKINTZAK.....	5
3.-GOBERNU IREKIA: JARRAIKI PARTE-HARTZEKO KANALA.....	9
4.-PARTE-HARTZE PROZESUAREN DATUAK	11
5.-PARTE-HARTZE PROZESUAN JASOTAKO EKARPENAK.....	15
5.1.-EKARPENEN KUANTIFIKAZIOA ETA HAUEN JATORRIA.....	15
5.2.-PROPOSATUTAKO GAIEN LABURKETA KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EDUKIEN ARABERA	17

GEHIGARRIAK:

I GEHIGARRIA.-BILERA SEKTORIALETAN EGINDAKO EKARPENAK

II GEHIGARRIA.-LURRALDEKAKO BILERETAN EGINDAKO EKARPENAK

III GEHIGARRIA.-ERABAKITZE BILERETAN EGINDAKO EKARPENAK

IV GEHIGARRIA.-PARTE-HARTZE PLANA

V GEHIGARRIA.-PROGRAMAREN AURKEZPEN SAIOA

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEAREN ILDO ESTRATEGIKO
ETA 2016-2019 PLANAREKIN LOTUTA DAGOEN PARTE-HARTZE PROZESUAREN KUDEAKETA ETA DINAMIZAZIOA

1.-SARRERA ETA HELBURUAK

Dokumentu honen xedea Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesua aurkeztea da, behin Informazio, Kontsulta eta Erabakitze Faseak garatuak izan direlarik.

Dokumentu hau, prozesuaren azpifase bakoitza amaitzean aurkeztutako beste dokumentuekin batera, aurretik aipatutako testuinguruan garatutako parte-hartze ekintza guztien emaitzen ondorioa da.

Alde batetik, prozesuko fase ezberdinen inguruan informazioa, oinarriak, helburuak, gaiak eta datak eskaintzen dira. Beste alde batetik, prozesuan zehar komunikazio, diseinu, helarazte eta deialdien inguruan burututako ekintzak deskribatzen dira.

Baita ere prozesuaren gardentasuna bermatzen duten datu kuantitatiboak eskaintzen dira, Parte-hartze prozesuaren garapena baloratu ahal izateko ezinbestekoak direnak.

Azpmarratzekoa da Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesua anitz eta osotzat hartu daitekeela, parte hartzea oso anitza izan delarik eta egindako ekarpenek gai ezberdinak landu izan dituztela eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Planarekin zuzenean lotuta daudela.

Hau dela eta dokumentu honen helburua ekarpen eta proposamen guztien laburketa ere bada, edozein fasetan egindakoak izanda eta edozein kanal erabilia izan delarik, bai fisikoak bai on-line bidezko kanalak.

Prozesuaren helburuak ondorengoak ziren:

- 11/2012 Legea, Gardentasun eta Gobernu Irekiarena betetzea.
- Nafarroako kultura publikoaren plangintzaren inguruan hiritargoa informatzea.
- Kultura diskurtsoaren eraikuntzan hiritargoa inplikatzeko.
- Parte-hartze handia duen Kultura Politika bultzatzea eta arlo ezberdin guztietan dagoen aniztasuna kontuan hartuta.
- Parte-hartze eta gardentasunaren bitartez elkarrenganako garapena bultzatzea hiritargoaren eskaerakiko egokitasuna hobetearren.
- Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea eta baita Nafarroako Gobernuko plangintza ere, parte hartzen duten erakundeen interes publikoa duten ekarpenen bitartez.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

2.-INFORMAZIO ETA PARTE-HARTZE PROZESUA

2.1.-PROZESUAREN FASEAK

INFORAZIO ETA KONTSULTA FASEA

Prozesuaren Informazio eta Kontsulta fasea bilera sektorialak burutuz hasi izan zen. Bilera sektorial hauek gai ezberdinetan antolatuak izan ziren, era berean Kultura Zuzendaritza Nagusiko arlo ezberdinak banatzen direlarik, hauek dira:

- **Artxiboak.**
- **Museoak.**
- **Historia Ondarea**
- **Liburutegiak.**
- **Kultura Ekintza: Ikus-entzunezko eta Zinematografia arloa.**
- **Kultura Ekintza: Musika.**
- **Kultura Ekintza: Arte Eszenikoak.**

Kultura Ekintzaren bilera sektoriala hiru bilera ezberdinetan banatua izan zen, izan ere, hemen landu beharreko gai independenteak eta parte-hartze kopurua aurreikusita eta zentzu eta lankortasun handiagoa izan zezaten.

Bilera sektorialak ospatzeak helburu bikoitza zeukan:

- Parte-hartze prozesuan interesa zuten agenteak informatzea, baita Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Plana eta Zerbitzu bakoitzeko Planen (Museoak, Artxiboak, Ondarea, Liburutegiak eta Kultura Ekintza) ingurukoa ere.
- Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren arlo bakoitzeko Planarekin erlazioa zuten gaiekiko egiten ziren ekarpenak jasotzea, Zuzendaritza Nagusiaren Plana bera elikatzen zen heinean.

Bilera sektorialak Maiatza eta Ekaina hilabete bitartean garatu izan ziren, data eta orduak ondorengoak izan zirelarik:

- Maiatzaren 16an: Museoak (INAPeko Pio Baroja aretoa).
- Maiatzaren 17an: Artxiboak (Nafarroako Artxibo Orokorra).
- Maiatzaren 18an: Historia Ondarea (INAPeko Pio Baroja aretoa).
- Maiatzaren 23an: Liburutegiak (INAPeko Pio Baroja aretoa).
- Maiatzaren 24ean: Kultura Ekintza: Ikus-entzun eta Zinematografia arloak (INAPeko Pio Baroja aretoa).
- Ekainaren 1ean: Kultura Ekintza: Musika (INAPeko Pio Baroja aretoa).
- Ekainaren 2an: Kultura Ekintza: Arte Eszenikoak (antzerkia eta dantza) (INAPeko Pio Baroja aretoa).

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

Bilera guztien garapena **17 eta 19 ordu bitartean** garatzea aurreikusi izan zen, hala ere, maiz ordutegia zabaldu behar izan zen dinamikaren beharrak izan zirela eta¹.

Prozesuaren bigarren azpifasea (Informazio eta Kontsulta fasearen barne) **lurraldekako 7 foruen** bitartez garatu izan zen. Foru hauek Iraila eta Urria bitartean burutu izan ziren eta hurrengo herrietan garatu izan ziren:

- **Tutera.**
- **Tafalla.**
- **Lizarra.**
- **Iruñea.**
- **Doneztebe.**
- **Altsasu.**
- **Zangoza.**

Bilera hauen helburua lurralde mailako parte hartze aniztasun ahalik eta sakonena lortzea zen, hau dela eta, herri hauetako gertuko herrietako erakundeetako agenteak, kulturalak eta sozialei deialdia helarazi zitzaielarik.

Data eta orduak ondorengoak izan ziren:

- Irailaren 19an: Tuteran (Castel Ruiz Almirantearen Etxea).
- Irailaren 20ean: Tafallan (Tafallako Kulturgunea).
- Irailaren 21ean: Lizarran (Karlismoaren Museoa).
- Irailaren 26ean: Iruñean (INAP).
- Irailaren 27an: Donezteben (Herri ostatuan).
- Irailaren 28an: Altsasun (Kultur etxean).
- Urriaren 3an: Zangozan (Vallesantoro Jauregia-Kultur etxean).

Bilera guztien garapena **17 eta 19 ordu bitartean** garatzea aurreikusi izan zen, hala ere, gehiengoaren ordutegia zabaldu behar izan zen dinamikaren beharrak izan zirela eta.

ERABAKITZE FASEA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuaren bigarren fasea Erabakitze fasea zen. Hemen nagusitzen den ezaugarria parte hartzearen zehaztasun handiagoa da, Nafarroako kultura politikarentzat bereziki garrantzitsuak diren gaien inguruan lan egin zelarik.

Erabakitze bileretan landu ziren gaiak ondorengoan izan ziren:

¹ I Gehigarrian bilera bakoitzeko akta dokumentuan ordutegi zehatza agertzen da.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

- **Kulturaren Eskuragarritasun eta Ikusgarritasuna.**
- **Plangintza eta Kudeaketa.**
- **Araudia 1:** Mezenasgo Legeren berrikuspina eta Kultura Eskubide Legearen sorrera.
- **Araudia 2:** Lege Sektorialen berrikuspina (Museoak, Artxiboak, Liburutegiak eta Ondarea).

Erabakitze bileren helburu zehatzak ondorengoak izan ziren:

- Kultura debatearen gai garrantzitsuenen inguruko erabakitzea zehaztea, gai hauek parte-hartze prozesuan zehar garatutakoak izan ziren, bai plangintza fasean bai Informazio eta Kontsulta fasean.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Planean barneratzeko gaien inguruko amankomuneko iritzira heltzea, hauek erabakitze gaiekin erlazioa zutelarik.

Erabakitze bilera Urri eta Azaroa hilabete bitartean garatu izan ziren, ondorengo data eta orduetan burutu izan zirelarik:

- Kultura Eskuragarritasun eta Ikusgarritasunaren Erabakitze Bilera: Urriaren 25ean. (Uharteko Arte Garaikideko Zentroan).
- Araudiaren Erabakitze Bilera: Mezenasgo Legea eta Kultura Eskubide Legea: Urriaren 28an (INAP Eraikinean, Blanca de Navarra aretoan).
- Plangintza eta Kudeaketaren Erabakitze Bilera: Azaroaren 2an (Nafarroako Artxibo Orokorra).
- Araudiaren Erabakitze Bilera: Lege Sektorialak: Azaroaren 3an (INAP Eraikinean, Pio Baroja aretoan).

Bilera guztiek 3 orduko luzapena izan zuten eta 9:30 eta 12:30 ordu bitartean garatu izan ziren, Eskuragarritasun eta Ikusgarritasun bilera ez ezik, 16:30 eta 19:30 ordu bitartean garatu izan zirelarik.

AURKEZPEN PUBLIKOAREN FASEA

Behin erabakitze fasea amaituta, Planaren behin behineko dokumentua aurkezpen publikoaren fasean murgiltzen da, non, Gobernu Irekiaren web orrialdearen bitartez, oraindik ere ekarpenak aurkeztu daitezke, geroago Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuaren behin betirako dokumentuan gehituak izango direnak .

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

2.2.-PROZESUAREN INFORMAZIO, KOMUNIKAZIO ETA DEIALDI EKINTZAK

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesua momentu oro, zeharka eta jarraika burutua izan da komunikazio ekintza, informazio eta deialdi ekintza ezberdinen bitartez, parte hartzeari dagokionez prozesuaren garapenaren arrakasta azpimarratu daitekeelarik.

Ondoren prozesuan zehar burutu izan diren komunikazio, informazio eta deialdi ekintza nagusien zehazten dira:

A.-Kultura Agenteekin prestakuntza bilera

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuaren diseinatze fasean, kultura agente ezberdinekin lan bilera bakarra burutu izan zen hurrengo aspektuak ezartzeko helburuarekin:

- Prozesuaren faseak adostea.
- Erabakitze Fasean lantzeko gai garrantzitsuenak ezartzea.

Bilera hau Otsailaren 8an burutu izan zen eta bertan 8 kidek parte hartu izan zuten, ondorengo kultura arloen ordezkariak zirelarik:

- Artxiboak.
- Museoak.
- Kultura Ekintza: Arte Eszenikoak.
- Kultura Ekintza: Tokiko Erakundeak.
- Kultura Ekintza: Musika.
- Liburutegiak.

B.-Aurkezpen bilera (Apirila)

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesua hasteko, prozesuaren beraren aurkezpen bilera burutu izan zen, kultura arloarekin zerikusia zuen edonori zuzenduta zegoelarik.

Aurkezpena 2016ko Apirilaren 19an garatu zen INAP Eraikineko Pio Baroja aretoan eta 10 eta 14 ordu bitartean burutu izan zen. Landutako helburuak ondorengoan izan ziren:

- Kultura Ekintzaren Plana eta ildo estrategikoen zirriborroaren aurkezpena.
- Aurreikusitako parte-hartze prozesua aurkeztea: parte hartzearen eskubidearenganako informazioa eskaintzea eta eskubide honen burutzea ere bai.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

- Erakundeek bultzatutako hiritargoaren parte-hartzeren inguruko irizpide eta garrantziaren inguruan hausnartzeko espazio bat sortzea.
- Interesgarriak izan ziren esperientzien aurkezpena.
- Kultura diskurtsoaren eraikuntzan hiritargoa barneratzea.

Hiritargo Parte-hartze eta Kultura Kudeaketa bilerara bertaratzeko izen ematea 195 lagunekoa izan zen.

Bileraren programa V Gehigarrian agertzen da.

C.-Kultura Koordinatzaile eta Gestoreekin bilera

Nafarroako herrietako Kultura Koordinatzaileekin bileraren garapena, non hauei Parte-Hartze Prozesuaren inguruko informazioa eskaintzen zitzairen eta zehazki iraila eta urri partera antolatuko ziren lurraldekako bileren ingurukoa. Honetaz gain, erabakitze bileren inguruko informazioa eta zehazki, Plangintza eta Koordinazioaren inguruko bilerarena eskaini zitzairen, bertako parte hartzaileak Kultura Koordinatzaile berak zirelarik.

Bilera amaitu eta gero, puntu ezberdinen inguruan iritzia eman zezaten Kultura Koordinatzaileei galdetegi bat bidali zitzairen:

- Zonalde ezberdinen artean dauden ezberdintasunak kontuan hartuz, lurraldekako bilera bakoitzean landu beharreko gaiak.
- Bileretan parte hartzeko zonalde bakoitzean interes berezia izan zezaketen elkarte, talde, etab.
- Erabakitze bileretan lantzeko gaien eta parte hartzaileen zabaltzea.

Nafarroako herri ezberdinetako Kultura Koordinatzaileekin batera elkarlanean egindako zabaltze eta komunikazio lana ezinbestekoa izan zen ondorengo Lurraldekako Foruak burutuak izan zitezen.

D.-Parte-hartze Faseen Deialdi eta Komunikazioa

➤ **Bilera sektorialak**

Bilera sektorialen deialdia posta elektronikoko bitartez burutu izan zen participacioncultura@navarra.es helbide elektronikoa bidez. Deialdia burutu izan zen mementoan prozesuaren Gobernu Irekiko orrialdea oraindik ez zegoen erabilgarri, deialdia eta izen ematea posta elektronikoko bitartez egin zelarik.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

Prozesuak izaera irekia izan zuen, interesa zuen edonork parte hartu zezakeelarik, betiere Kultura Zuzendaritza Nagusiko Sailerako Zuzendari bakoitzak deialdi zehatzak egin zizkietelarik hauekako bakoitzak aukeratu izan zuen agente batzuei².

Deialdi ekintzak ondorengoak izan ziren:

- **Aukeratutako agenteen zerrenda osoari zuzendutako deialdi orokorra.** Deialdi honetan 7 bilera garatuko ziren datak aurkezten ziren, edonork parte hartzearen aukera eskainiz.
- **Bakarkako deialdia** bilera bakoitzerako: Bilera sektorialetan parte hartzeko gonbitea Kultura Zuzendaritza Nagusiko Sailerak zuzendaritzek eraturako agente listan zeuden orori luzatu zitzaien.
- **Prentsa-oharra:** Publikoari oro har zuzendua bertan parte-hartze prozesuaren inguruan informazioa eskaintzeko eta baita bileren inguruan ere.

Edozein bilera sektorialetan parte hartu ahal izateko beharrezkoa zen izena ematea posta elektronikoarekin batera bidaltzen zen galdetegia betetzea eta itzultzea³.

➤ **Lurraldekako Foruak**

Lurraldekako Foruen deialdia prozesuaren posta elektronikoaren bitartez egin zen eta Gobernu Irekiaren laguntzaz, bai komunikazio eta zabalpenarentzat bai parte-hartzaileen izen ematearen mementoan.

Parte hartzeko agenteen aukeraketarako Nafarroako herri ezberdinen hainbat Kultura Koordinatzaileen laguntza izan zen. Hauek zonalde bakoitzarekin zerikusia duten kultura arloarekin ekarpenak egin zituzten talde, elkarte, pertsona, etab. izan ziren.

Elkarte eta Kultura Koordinatzaileekin elkarlanean izendatutako taldeaz gain, zerrendaren kopuru nagusia Kultura Koordinatzaileak berak ziren, baita Nafarroako Foru Erkidegoko herri guztien kultura erantzule politikoak ere. .

Azpimarratzekoa da parte-hartze prozesua interesa zuen publikora zuzenduta egoteaz gain, izaera irekia zuela, interesa zuen edonork parte hartu zezakeelarik, aurretik soilik izena eman behar zelarik.

Deialdiaren ekintzak ondorengoak izan dira:

- **Aukeratutako agenteen zerrenda osoari zuzendutako deialdi orokorra.** Deialdi honetan 7 bileren datak azaldu izan ziren, hauekako edozeinetan izena emateko aukera zegoelarik. Edozein bileratan izen ematearen aukeraren helburua honakoa zen: nora jo oso

² Agenteen zerrenda Lehen Dokumentuaren VI Gehigarrian agertzen da.

³ Lehen Informarean VI Gehigarria

argi ez zuten zonaldeen parte hartzea erraztea. Hala ere, argi utzi izan zen bakoitzaren herriarekin gehien identifikatzen zen herrian ospatzen zen bileran parte hartzea zela helburua.

- **Prentsa-oharra:** Publikoari oro har zuzendua bertan parte-hartze prozesuaren inguruan informazioa eskaintzeko eta baita bileren inguruan ere.

Deialdiez gain, Kultura Koordinatzaileek zabaltze lana burutu izan zuten arlo jakin batean interesa zuten agenteek parte har zezaten, deialdia zonaldeko herri bakoitzeko elkarte edota talde kulturaleri helaraziz.

➤ **Erabakitze Fasea**

Erabakitze bileren posta elektronikoa bitartez burutu izan zen, participacioncultura@navarra.es helbidearen bitartez, baita beste bide osagarriez ere (Uharteko Arte Garaikideko Zentroko posta elektronikoa).

Parte hartu behar zuten agenteen aukeraketarako, aurretiko prestakuntza lana izan zen Asistentzia Teknikoa eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artean, erabakitze bilera bakoitzerako interesaturiko agenteak ezarritik.

Azpimarratzekoa da parte-hartze prozesua interesa zuen publikora zuzenduta egoteaz gain, izaera irekia zuela, interesa zuen edonork parte hartu zezakeelarik, aurretik soilik izena eman behar zelarik.

Deialdi eta zabaltze ekintzak ondorengoak izan ziren:

- **4 erabakitze bileretan parte hartzeko interesa zuten agenteen zerrenda bakoitzari zuzendutako deialdi zehatza (ikus Hirugarren Dokumentuaren VI Gehigarria).**
- **Prentsa-oharra:** Publikoari oro har zuzendua bertan parte-hartze prozesuaren inguruan informazioa eskaintzeko eta baita bileren inguruan ere.


Eskuragarritasun eta Ikusgarritasun bileraren kasuan azpimarratzekoa da Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren elkarlan eta laguntza, izan ere, sormen arloari zuzendutako deialdi espezifikoak burutu izan baitzuen.

Zonaldekako edozein bileratan parte hartzeko beharrezkoa zen aurretik izena ematea Gobernu Irekiko web orrialdeko Parte-hartze prozesuaren orrialdearen bitartez.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

3.- GOBERNU IREKIA: JARRAIKI PARTE-HARTZEKO KANALA

Lehen zehaztutako komunikazio, zabaltze eta deialdi bidez gain, prozesuan zehar Gobernu Irekiko web orrialdea berebiziko tresna prozesuaren komunikazio eta gardentasunarentzat izan dela azpimarratzea garrantzitsua da.



Participación

- Procesos de participación
- Propuestas ciudadanas
- Planes y Programas
- Normativa en elaboración
- Encuestas
- Escucha activa
- Instrumentos de participación

Plan de Acción de la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana 2016-2019

La Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana tiene como eje prioritario en su política cultural la participación ciudadana, tanto interna como externa. La participación es una pieza clave en el desarrollo de proyectos en conjunción con el territorio y la ciudadanía, siendo para ello necesario la puesta en marcha de nuevos modelos de participación, acordes a las necesidades y demandas de la ciudadanía y de los sectores culturales y artísticos del siglo XXI.

Esta línea estratégica del Departamento de Cultura, Deporte y Juventud está en consonancia con el acuerdo programático del Gobierno de Navarra que establece la doble finalidad de la cultura en su punto 2.6:

Por una parte, promover valores, formas de vivir y pensar que cohesionen la sociedad y conformen marcos de convivencia basados en la pluralidad, libertad, creatividad, justicia social, inclusión, participación y democracia.

Por otra, desplegar al máximo la dimensión creativa e innovadora de la cultura para responder a los retos que afrontan las sociedades contemporáneas. El nuevo reto de la política cultural es materializar el desarrollo comunitario centrado en la proximidad y la participación.

Con este fin, la Dirección General de Cultura ha impulsado un plan de participación que se desarrollará a lo largo del 2016 con la colaboración con la Sección de Participación Ciudadana del Departamento de Relaciones Ciudadanas e Institucionales.

FICHA

- » DEPARTAMENTO: Departamento de Cultura, Deporte y Juventud
- » UNIDAD RESPONSABLE: Dirección General de Cultura - Institución Príncipe de Viana
- » TIPO DE PROPUESTA: Plan
- » FASE DE LA PROPUESTA: Diseño
- » ESTADO DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN: Activo
- » ESTADO DE LA PROPUESTA DE GOBIERNO: Activo
- » PARTICIPACIÓN: Pueden remitir sus aportaciones, del 2 de diciembre de 2015 al 5 de enero de 2017.
- » DOCUMENTACIÓN: [Plan de la Dirección General de Cultura](#)
- » FECHA ACTUALIZACIÓN: Lunes, 31 Octubre, 2016

CONTENIDOS RELACIONADOS:

- Plan de Acción de la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana
- Departamento de Cultura
- Cultura Navarra
- Mecanismo cultural de Navarra

Prozesuan zehar ezinbestekoak izan diren ondorengo betebeharrak izan ditu Gobernu Irekiko web orrialdeak:

- **Deialdietan laguntza**, fase ezberdinetako bilera eta foruen data eta ordutegiak helaraziz. Gainera, bileren izen ematea Gobernu Irekiko web orrialdean parte-hartze prozesuak duen web orrialde propioaren bitartez burutu izan ziren.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEAREN ILDO ESTRATEGIKO ETA 2016-2019 PLANAREKIN LOTUTA DAGOEN PARTE-HARTZE PROZESUAREN KUDEAKETA ETA DINAMIZAZIOA

- **Informazio eta komunikazio bidea:** Parte-hartze prozesuaren Gobernu Irekiko web orrialdean interesaturiko publikoarentzat interesgarriak suertatu zitezkeen informazio ezberdinak erraztu izan dira; hala nola:
 - ✓ **Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Planaren Dokumentua.**
 - ✓ Bilera sektorialen akta-**dokumentuak.**
 - ✓ Lurraldekako Foruen akta-**dokumentuak.**
 - ✓ Erabakitze bileren akta-**dokumentuak.**

- **Parte-hartze bidea:** Prozesuan zehar ekarpen eta proposamenak egitea posible izan da Gobernu Irekiak erraztutako sistemaren bitartez. Parte-hartze bide zuzenak osatu izan dituzten 4 ekarpen jaso izan dira (bertaratutako bileretan eta baita posta elektronikoz egindako ekarpenak). Azpimarratzekoa da Gobernu Irekiko web orrialdea izan dela **Kultura Zuzendaritza Nagusiko Planaren Aurkezpen Publikoaren Faserako** ekarpenak egiteko bidea.

4.-PARTE-HARTZE PROZESUAREN DATUAK

Ondoren azaltzen dira Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuaren fase ezberdinetan jaso izan diren datuak.

Bai bilera sektorialetan bai erabakitze bileretan, hauetako bakoitzera zehazki deitutako erakundeak aipatzen dira, geroago izena eman zuten pertsonak eta baita azkenik bileran parte hartu izan zuten pertsona kopurua ere. Lurraldekako Foruetan ez dira Foru bakoitzean erakunde bakoitzari eginiko deialdi zehatza agertze, izan ere, Foruan izena emateko deialdia orokorra izan baitzen, interesa zuen edonor bertaratu zedin.

Bileretako datu kuantitatiboak (deitutako erakundeak, parte hartzaileak, etab.) prozesuaren fase bakoitzeko dokumentu zehatzetan jasota daude.

➤ BILERA SEKTORIALAK

DEITUTAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK	IZENA EMANDAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK	PARTE HARTUTAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK
MUSEOEN BILERA		
45	28	18
ARTXIBOEN BILERA		
23	21	16
HISTORIA ONDAREAREN BILERA		
34	31	30
LIBURUTEGIEN BILERA		
382	30	22
KULTURA EKINTZA BILERA: IKUS-ENTZUNEZKO ETA ZINEMATOGRAFIAREN SAILA		
72	18	9
KULTURA EKINTZA BILERA: MUSIKAREN SAILA		
59	25	17
KULTURA EKINTZA BILERA: ARTE ESZENIKOEN SAILA		
78	43	28
OSOTARA		
693	196	140

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

➤ **LURRALDEKAKO FORUAK**

IZENA EMANDAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK	PARTE HARTUTAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK
TUDELA / TUTERA	
26	31
TAFALLA	
22	20
ESTELLA / LIZARRA	
25	26
PAMPLONA / IRUÑA	
35	26
DONEZTEBE / SANTESTEBAN	
17	16
ALTSASU / ALSASUA	
9	8
SANGÜESA / ZANGOZA	
22	22
OSOTARA	
156	149

➤ **ERABAKITZE BILERAK**

DEITUTAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK	IZENA EMANDAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK	PARTE HARTUTAKO PERTSONAK/ERAKUNDEAK
ESKURAGARRITASUN ETA IKUSGARRITASUN BILERA		
76 (CACH-ek deitutakoak ez dira kontaktzen)	21	11
ARAUTEGI BILERA (MEZENASGO LEGEA ETA KULTURA ESKUBIDE LEGEA)		
186	22	13
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA BILERA		
340	25	17
ARAUTEGI BILERA (LEGE SEKTORIALAK)		
205	21	20
OSOTARA		
807	89	61


Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuan zuzenean parte hartu izan duten pertsona kopurua 350eko izan da. Bileretan parte hartutako pertsona kopurua kontaktzen da datu hauetarako, kontuan izan gabe pertsona batek

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA


zenbat bilereetan parte hartu izan duen. Horrela, pertsona jakin batek hiru bilera sektorial ezberdinetan parte hartu izan badu, hiru parte hartze ezberdin bezala kontatzen dira.

Bilera ezberdinetan izan diren parte hartze erakundeen tipologia dela eta, ondoren prozesuaren azpifase bakoitzean jasota datuak azaltzen dira:


Bilera sektorialak



Lurraldekako Foruak



Erabakitze Bilerak




Iturria: EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritza. Lanketa propioa.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

Grafikoetan ikus daitekeenez, arlo "pribatuko" presentzia (honen baitan, elkarte enpresak, profesionalak, erakundeak, etab. jasota daude) nagusiagoa izan da bilera sektorialetan eta baita erabakitze bileretan ere, Lurraldekako Foruetan ez bezala, non Erakunde Publikoen (batez ere tokiko erakundeak) bertaratzea nagusiagoa izan den. Honek erakusten duenez, prozesuan parte hartu izan duten erakundeen aniztasuna da ageri, aberastasun eta sinesgarritasun handiagoa ematen duenak. Gainera, kontuan hartu behar da, lurraldekako parte hartzearen garrantzia, aniztasun eta ordezkotasun handiagoa eskaintzen duena.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuaren parte hartzea generoaren ikuspuntutik aztertzea garrantzitsua da ere. Nahiz eta prozesuarekin batera ez diren genero aldetik berdintasunean parte hartzeko ekimenik burutu, berebizikoa da parte hartze hori aztertze aurrerago burutu daitezkeen parte-hartze prozesuetan kontuan hartzeko.



Iturria: EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritza. Lanketa propioa.

Ikus daitekeenez, prozesuan zehar eta baita honen azpifasetan ere, emakumeen parte hartzea nagusiagoa izan da, %54-%55 inguruan mantendu izan delarik. Datu hauen arabera, emakumeak kultura arloan era aktiboan eta kuantitatiboki parte hartzen duela baieztatu daiteke.

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

5.-PARTE-HARTZE PROZESUAN JASOTAKO EKARPENAK

5.1.-EKARPENEN KUANTIFIKAZIOA ETA HAUEN JATORRIA

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen Ildo Estrategiko eta 2016-2019 Planarekin lotuta dagoen Parte-hartze prozesuak garrantzi handia izan beharko zuen Kultura Zuzendaritza Nagusiak kultura politikak garatzerakoan. Hau dela eta, berebizikoa da prozesuaren aberastasuna iritzi eta ekarpenen sormenari dagokionez azpimarratzea. Fase eta azpifase bakoitzak proposamen, ekarpen, iritzi, etab. kantitate handia sorrarazi du, Zuzendaritza Nagusiaren eta honen Sailentzat baliabide garrantzitsua izan behar dutelarik. Ondoren agertzen dira egindako ekarpen kopurua eta hauen jatorriekiko jaso izan diren datuak:

ZUZENEAN EGINDAKO EKARPENAK: BILERA SEKTORIALAK

BILERA	EKARPEN KOPURUA
MUSEOAK	18
ARTXIBOAK	21
LIBURUTEGIAK	32
ONDAREA	39
ZINEMATOGRAFIA	24
MUSIKA	18
ARTE ESZENIKOAK	28

ZUZENEAN EGINDAKO EKARPENAK: ERABAKITZE BILERAK

BILERA	EKARPEN KOPURUA
TUTERA	28
TAFALLA	21
LIZARRA	24
IRUÑEA	30
ALTSASU	20
DONEZTEBE	17
ZANGOZA	28

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

ZUZENEAN EGINDAKO EKARPENAK: ERABAKITZE FASEA

BILERA	EKARPEN KOPURUA	
ESKURAGARRITASUN IKUSGARRITASUNA	ETA	48
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA		61
ARAUTEGI BILERA (MEZENASGO LEGEA ETA KULTURA ESKUBIDE LEGEA)		41
ARAUDIA: LEGE SEKTORIALAK		63

POSTA ELEKTRONIKOZ EGINDAKO EKARPENAK

INFORMAZIO ETA KONTSULTA FASEA:	20 (18 bilera sektorialekiko eta 2 lurraldekako bilerekiko)
ERABAKITZE FASEA:	16

GOBERNU IREKIAN EGINDAKO EKARPENAK

PROZESUAN ZEHAR	4
------------------------	---

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

5.2.-PROPOSATUTAKO GAIEN LABURKETA KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EDUKIEN ARABERA

Ondoren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Planaren zati bakoitzean egindako ekarpenen gai ezberdinak azaltzen dira:

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSI / BALIABIDEAK ETA GARAPEN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA NAFARROAKO TOKIKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ✓ SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOA ✓ PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ETA KUDEAKETA ✓ ESKURAGARRITASUNA ETA IKUSGARRITASUNA ✓ BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK ✓ PUBLIKOAREN KUDEAKETA ✓ ZABALTZE ETA FORMAZIOA ✓ MEZENASGO LEGEA ✓ KULTURA ESKUBIDE LEGEA
MUSEOEN EKINTZA PLANA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ MUSEOEN BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK ✓ ONDARE IMMATERIALA (MUSEO ETNOGRAFIKOA) ✓ HIRITARGOAREN ESKAERAK ✓ MUSEOEN LEGEA ✓ ZABALTZE ETA EZAGUTARAZTEA
ARTXIBOEN EKINTZA PLANA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ SISTEMAREN BURUA ✓ ARTXIBOAK ETA HIRITARGOA ✓ FORMAZIOA ETA LAN KONPETENTZIAK ✓ ARTXIBOEN BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK ✓ ARTXIBOEN LEGEA
LIBURUTEGIEN EKINTZA PLANA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ HIRITARGOAREN ESKAERAK ✓ ZERBITZUEN EGOKITZEA ✓ GIZA BALIABIDEAK ✓ NAFARROAKO LIBURUTEGI NAGUSIA ✓ RECURSOS E INFRAESTRUCTURAS ✓ BOLUNTARIOAK ✓ LIBURUTEGIEN EZAGUPEN ETA IRUDIA ✓ LIBURUTEGIEN LEGEA
ONDAREAREN EKINTZA PLANA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ ONDAREAREN EZAGUPEN ETA ZABALTZEA ✓ ESKU HARTZE IRIZPIDEAK ✓ ONDAREEN JABEGOA ✓ ONDAREAN LAN EGITEN DUTEN TALDEEN IDENTIFIKAZIOA ✓ AZPISEKTORE EKONOMIKOA ✓ BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK ✓ ONDARE LEGEA

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA

**EKINTZA KULTURALAREN
PLANA**

- ✓ PROGRAMAZIOA ETA JARDUNALDIAK
- ✓ SAILAREN PROGRAMA ETA JAIALDIAK
- ✓ ZABALTZE ETA INFORMAZIOA
- ✓ DIRU LAGUNTZEN DEIALDIAK
- ✓ SEKTORE-ADMINISTRAZIO HARREMANA
- ✓ SEKTOREAREN ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBA
- ✓ LEGEDIA

Proposamenen zehaztasun eta tematikak I, II eta III Gehigarrietan agertzen dira.

Tuteran, 2016ko Abenduan

BEHIN BEHINEKO DOKUMENTUA



EIN ARQUITECTURA E INGENIERÍA URBANA S.L.U

Tel: 948 82 52 62

e-mail: einsl@einsl.es